



UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen taldeko kide hori:

EhuGunek eta Ehunberri proiektuak elkarrizketa-saio bat antolatu dute **UPV/EHUK Euskadin bakea eraikitzeko zer egin dezakeen hausnartzeko**. Apirilaren 7an egingo da, Bilboko Bizkaia Aretoan.

Jardunaldi horretan, UPV/EHUko kideek elkarrekin hausnartuko dute gatazkak eta indarkeriak nola eragiten duen unibertsitatean eta unibertsitateak berak zer egin dezakeen Euskadin bakea eraikitzeko. Topaketa, hain zuzen ere, Ehunberri gai horren inguruan egiten ari den ikerketa-prozesuaren bigarren fasean gauzatuko da.

Aurreneko fasean irakasle eta ikertzaileen taldeko 22 kidek parte hartu dute, erdi-egituratutako elkarrizketak eginez. Topaketan parte hartuko dutenei astebete lehenago bidaliko zaie lehen faseko emaitzen agiria, irakur dezaten, eta agiri hori izango dugu topaketaren abiapuntu.

BAKEA
PAZ
PAIX
PEACE





TOPAKETAREN EGITARAUA

Hasiera

16:00 Ongietorria eta gunearen irekiera.

Amaia Maseda, Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea, UPV/EHU.

Inesa Ariztimuño, Bakearen Itsasargiaren arduraduna, Donostia 2016.

16:10 Bost urte Ehugunerekin.

Joxerramon Bengoetxea, Ehuguneraren koordinatzailea. Arantza Urkaregi, Emaguneraren koordinatzailea.

16:30 Zer egin dezake unibertsitateak Euskadi bakea eraikitzen laguntzeko? Ehunberri proiektuak UPV/EHUn egindako azterlanaren lehen fasearen emaitza nagusiak.

Xavi Mínguez Alcaide, Ehunberriaren koordinatzailea.

16:45 Atsedenaldira - kaferako tartea

Elkarrizketaren dinamika

17:00 Elkarrizketaren dinamikaren aurkezpena.

17:10 Talde txikiko elkarrizketen lehen txanda.

18:00 Talde txikiko elkarrizketen bigarren txanda.

19:00 Talde handiko elkarrizketa: iritziak partekatzea eta elkar aberastea.

19:20 Topaketaren amaiera.

Noiz: Apirilak 7, osteguna.

Ordutegia: 16.00-19.30

Non: Arriaga entzunaretoa, Bizkaia Aretoa. Abandoibarra etorbidea 3, Bilbo.

Berresteko: xavier.minguez@ehu.eus / 696 57 87 00.

Elkarrizketaren bideratzailea: Xavi Mínguez Alcaide, Ehunberriaren koordinatzailea.

Bidaiaren gastuak: Antolatzaileen kontura.

EhuGune (UPV/EHUko Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza) UPV/EHUren, gizarte zibilaren eta erakundeen arteko elkarrekintza-esparrua da: euskal gizarterako garrantzi berezia duten gaiak jorratzen dira bertan, eta bizikidetzeta eta bakea dira gai nagusietako bat. 2012tik, EhuGunek hainbat eta hainbat workshop, jardunaldi eta biltzar antolatu ditu.

Ehunberri: gizarte-ehun berri baterako espazioak eta elkarguneak Donostia 2016ren proiektu bat da, Gune Irekiak Elkarteak UPV/EHUREKIN batera sustatzen duena. Ehunberriaren helburua da Euskadin bakea eraikitzea eta gizarte-sarea berriz sortzea, gizarte-eragileekin, hedabideekin, unibertsitateekin eta biktimak birgaitzen adituak diren psikologoekin batera lan eginez.

